



## **OSOKO ZUZENKETA**

### **2018KO UDAL AURREKONTUA**

Udal gobernuak 2018rako aurkeztu duen aurrekontu proposamena aztertu ondoren, Puede Pasaia(k) Ahal Du udal taldeak osoko zuzenketa hau aurkezten du:

Gure udal taldeak aurkeztu dituen zatikako zuzenketez gain, esan beharra daukagu aurrekontu proposamenean gabetia nabarmenak antzeman ditugula, ez baita konponbiderik jasotzen Pasaia(k) herritar asko eta askok eskatzen dituzten beharrei erantzuteko, besteak beste: lan ezegonkortasuna, pobrezia energetikoa, irisgarritasuna, mugikortasun arazoak (aparkalekuak, kasu).

Aurrekontu honetan aurtengo aurrekontuan baino diru-sarrera gehiago jasotzen den arren, iaz baino kopuru txikiagoa eskaintzen zaio enpleguaren sustapenari. Ez da neurri berririk ezartzen enplegua sortzen laguntzeko, ez da laguntzarik jasotzen ETE eta autonomoei krisi honetatik ateratzen laguntzeko.

Udalak herritarren zerbitzura egon behar du. Gastua erabakitzeko garaian lehenetsia eman behar zaio enplegua sustatzeko eta sortzeko ekintzak abian jartzeari. Gure udalerriak premiazko neurriak bultzatu behar ditu, Gipuzkoako langabezia gehien duten udalerrien zerrendako lehen leku lotsagarri horietatik irten gaitezen. Ez da nahikoa Oarsoaldeko enplegu sustapeneko planak babestea; gure udalerriak udal mailako neurriak garatzen hasi behar du.

Gainera, irmoki uste dugu nabarmen igo behar direla pasaitarren bizi-kalitatea hobetzera bideratutako partidak, bereziki egoera ahulenean dauden pasaitarrei laguntzeko partidak. Ez da bidezkoa familia batek hotza pasa behar izatea, gasaren edo argindarraren faktura ordaintzeko arazoak dituelako.

Gure taldean uste dugu bereziki larria dela sindikatuak kontuan ez hartzea, udal langileen beharrak aztertzeko garaian; izan ere, langileek euren eginkizunak behar bezala betetzeko, beharrezko baliabideak eskaini behar dizkiegu.

Puede Pasaia(k) Ahal Du-k eskola publikoaren aldeko apustua egiten du; irmoki uste dugu udalak eskola publikoa ekonomikoki merezi duen bezala babestu behar duela. Kalitatezko hezkuntza publiko baten alde egin behar dugu, eta horren arabera jardun.



Azkenik, kezkarriak iruditzen zaizkigu Pasaia(h)ko hondakin-bilketaren datuak. Aspaldidanik ari gara eskatzen aurrekontuetan gai hau lantzeko partida bat jaso dadin, gutxienez, hasteko behintzat, herritarrak birziklatzearen garrantziaz kontzientziatzeko neurriak hartzeko. Urtetik urtera birziklatze-maila gero eta txikiagoa da, beraz, Udal honek gero eta gehiago ordaintzen du sortzen duen errefusa bideratzeko. Hala ere, orain arte gobernu taldeak ez du inolako alternatibarik eskaini, eta ez dirudi premiazko konponbidea behar duen benetako arazotzat hartzen duenik. Gure iritzian, lehenengo neurri gisa, birziklatzea sustatzeko kontzientziazio-planak ezarri beharko lirateke.

Pasaian, 2017ko abenduaren 13an.

Puede Pasaia(k) Ahal Du-ren bozeramailea  
Julen Rodríguez Aboy.